

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bosgarren Urtea — Pamplona. Marzo - 1970 — Martxoan Iruña — 49 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

Gipuzkera edo euskera batua?

Herriko haur txikien eskolan nintzan lengoan; guk eztugu ikastolarik herrian. Aunditxoanak, bost bat sei urteko neska mutillak, letra saila eskutan hartuta zebiltzen. «H» zeukan batek eskuan eta, zer da hori? galdetu nion.

Letra muttuba, erantzun zidan bertako euskeran. Egia esan barregura eman zidan haurraren ateraldiak. Haurrak erakusten zaiena ikasten dute; nahiko gera gu, haur aundiok, letra muttu batengatik mutur joka ibiltzeko. Ongi begiratu, hutsa da «H» horren auzia; bainan, gauza gehiegi esan nahi ditu. Ikurriña bezela da:

«H» zaleak, eskualde guzitara ideki nahia ikusten dute letra muttuan. Euskeraren batasun zabala. Anai arteko berdintasuna.

«H» ren etsaiak, ikasia dute lengo, oraiko eta betiko euskera nagusia, eta ez dute iñungo txertorik nahi. Batasuna, bai; baño berena. Hau da letra muttuaren garraxi latza.

ARANTZAZU

Alderdi baten hitza bakarrik entzun omen zen Arantzazu-n. Ametsetan ez ba nabil, han zuen alderdi ixil horrek esan «beste batasun bat zertako!» Euskeraren batasuna erdi egina zegola eta beste erdia bide onez zijoala. Gipuzkeraz zela gehienik idazten eta gipuzkera, gaurkoan, gehienik mintzo. Utz ginezan bidea zabalik, gipuzkerak ekarriko zuela euskeraren batasuna. Eta orduan zen «imperialismo» hitza ofizialki euskal hiztegian sartu. Uste al duzue nolahi aztutzekoa dela? Guk gogoan daukagu. Zertako ga-

biltz orai egun argiko gertakizunak ilunpean sartu nahian? Joku garbia nahi ginuke. Asko eskatzea al da?

MEZA SANTUA

Besterik da Donostia aldean geroztik egosi den lixiba. Eta zer esanik ez; negargarri da «MEZA SANTUA» delakoaren batasun bedeinkatua. Liturji berriko eliz gaietan bi jokabide ageri dira, oso desberdinak. Esames azterketa, hitzen aukerabidea eta joskera berdina oso jator egin da. Uste ez ginuen bidea zelaitu digute. Eginkizun nagusia bete da. Ez ba-lu azken orduan alderdikerien sagu zikoitzak hain lotsagarri muturra sartu!

Meza dela ta, 'det... dezu'-rekin gabiltz azken bolara hontan Naparroko eliza euskaldunetan. Bizkaieraz 'dot', gure betiko anai ipar aldekoak 'dut' esaten jarraitzen dute. Gu berriaz, gizajuok, betidanik ezagutu duguna galdu ta 'imperialismo' lotsagabeakoaren mendean erori gera. Askotan burura etorri ere bai anai izenekoen maltzurkeriz minduta baño erdal jokabide garbiz Jainkoa gorestea ez ote zen hobe izango.

Ikustekoak dira gure herritako gizonak, zahartu ondoan, esakera xelebrek belarritan sartzen. Orai arte 'zordunai' eta 'zordunari' zorretan zegon batentzat esaten zen; 'zordunai' eta 'zorduneri', asko ba ziren. Oraikoan koxka guziak berdindu dizkigute. «Dakienak daki-esaten dute gure zaharrak; guri etzigiten erakutsi...».

Beti uste izan ginuen aingeru asko zirela zeruan; edo bederatzitalde gutxienez ere. Orai, zeru aldeko

berriak hain zalantzan dabiltzen hontan hango biztanleak gutxitu egin zaizkigu, nunbait. «Orrengatik, aingeru eta goi-aingeruakin» esatean, bat besterik ez dela gurekin abesteko adierazten du Meza liburuak. Hain gutxi re! «Aingeruekin» izango litzake, asko izanez. Eta berdintalde kontuan: «zeruko taide guztiekin», talde osoarekin esan nahi digu. «Guztiekin» izango zen, askoren kontua. Luze joango litzake atzeraka emandako guzien salatzea.

GURE IRITZIA

Ba dakit ez diela ajola aundirik batzueri. Gainera, sekulako liburu pila argitaratu digute; buru gogorrenak ere ikasiko dute azkena saldu orduko. Gazteizko nere adiskideak egin zuena, bana-banaka zuzenketak egiterik ez dago gure artean. Beraz, Arantzazu-n esandako prointziarren batasunari bultzada ederra eman zaio Naparroan (ixilian egina ez da diktadura).

Eta ez naiz letra muttuaz mintzo. Buru hauste gutxi ematen dit neri letra horrek, batasunaren auzia ez bai dago «H» kontuan; edozein eskoletako haurrek egun gutxiz hartzen dute. Besterik da azpitik dabilen jokua. Hitz gutxitan esateko, gipuzkera edo euskera batua hartu, dago zalantzan.

D. Manuel, euskaltzain-buruak, 'neutral' hitza digu azken aldi hontan mihiaren puntuan hartu. Hontaz ere nahi nuke noizbait mintzatu; bana, bildurra ematen dit gehiegi esan dezadan. Berea ez dena baztatu eta berea besterenean leporaino sartzea, ez da 'neutral' hitzari dagokion jokabidea. Oyartzundik Donosti aldera dijoan bidexka denen paketzeko ona izango da zure ustean; barkatu, 'pakeatzeko' esan nahi ginuen. Ez gatzortan zurekin batera.

Entzun; minaren minez diot. EZ, D. Manuel! Sasi-jakintxuok egin ginezaken 'enplasterutzari', ez! Eman bezaigute ikasienek batasun jatorraren argi-bidea; eta izan dezagun besteok ikasleen mailan entzuteko apaltasuna. Bestela, gauden geure etxetan orai baino lehen egon izan geran bezela. Han ere ba ginuke nun ikasia. Zureak ere ez du asko aberastu Naparroko mintzaira.

J. M. S.



EUSKERA, BETI AUR?

Aurrekin nola moldatzen geran badakigu. Ekenean guti sartuz; alkarrekin ibil ditezela utziz; etaz ardura daukagula, eken pozarako, noizean bein berei agertuz.

Urtean egun bat ematen diegu osoa aurrei; «Egun ttun ttun eguna» gure errian: egun ortan goizetik arratserako guzia, aurrentzat.

Erriko bestetan, an edo or, aurrentzat on dan zerbait-zerbait antolatzen dute, deus gutti, umen goxagarri bezala.

Aurrek ez dute itzik ateratzen al aundien bilguretan.

Beren etxetan bertan ere, aurrentzat, zer? Etxeko ez dan norbaitek, datorrenean, aurzalea bada, goxo zaien zerbait ekarriko dabe, itz ezti ta maitetsuekin emanez: ikusaria artu, ta andik baztertu beharrean dire aurtxoak, bidaliak izatea ez badute naiago.

Aurra entzuna izatea, baditeke: baña, ongi erantzuna, gutitan. Geienean, ez entzuna: geientsuetan, ez erantzuna ere.

Ez lukela ola behar? Badakit: baña gutartean ola dela ere ezin uka. Au egin ziguten gure aurzaroan: au egiten diegu geren aurrei. Len ta orai, kaiero aurrak.

Euskerakin nola moldatzen geran, badakigu: edo ez dakigu: ohar gaituz.

Gutti sartzen gera euskeran: bertzen agotan ibil dedila uzten degu, beraz arduratzen gerala, bere pozarako edo, noizean bein agertuz.

Urtean egun bat ematen diegu osoa Euskerari, egun orri izen pollit batekin bataioa emanez.

Egun ortan, goizetik arratserako guzia (itz egitea ere bai ote?) euskerarentzat.

Erriko bestetan, an edo or, euskerarentzat zerbait-zerbait antolatzen dugu, deus gutti, euskeraren goxagarri bezala.

Euskerak ezdu itzik ateratzen al garranzi edo funts aundiko bilguretan.

Geren etxetan bertan ere, euskerarentzat deus gutti. Etxeko ez den norbaitek datorkigunean, euskalzalea bada (au eder zaigulako), euskerari goxo zaien zerbait ekarriko du, euskeraz itz ezti xamur zerbait erranez: ori artu, ta baztertu behar du euskerak, bidalia izatea ezbadu nai.

Euskera entzuna izatea gutartean, baditeke: baña, erantzuna, guttitan. Geienean, ez entzuna: nonbait-nonbait debekatua: erantzuna, lainkoak daki non.

Ez lukela ola behar? Badakit. Baña, gutartean ola dala ere, ezin uka! Au egin zioten lengo batzuk euskerari: au egiten diegu oraiko geiagok. Len ta orai, kaiero, euskera!

Euskera, beti aur? Gu nor baginezke, ez uke ola behar!

IBARRONDO



«Jostatuz mintzaira ikas»

AUTOR: Andrés Méndez García (Inspector de Enseñanza Primaria)

VERSION AL VASCUENCE: Dr. D. Angel Irigaray (Académico de la Lengua Vasca) con la cooperación de P. Berrondo, S. Garmendia y J. A. Irigaray

EDICIONES: A N A Y A, de Primera Enseñanza

El título original de este libro dedicado a la enseñanza es el siguiente: «El mundo de las Palabras» y su autor, como queda dicho más arriba, el Inspector de Primera Enseñanza don Andrés Méndez García. La novedad de su contenido radica en la forma de enseñanza del idioma castellano pensando en la edad de los alumnos a los que se dedica y que el autor conoce perfectamente.

Como el prólogo dice y aclara bien, en este libro se enseña a hablar sin la pesadez del aprendizaje de memoria de las reglas gramaticales que en estas primeras edades escolares son carga, confusión y fatiga intelectual para el niño, dejando la gramática como una asignatura para edades posteriores. Si se inicia desde los primeros cursos de la Enseñanza Primaria con lecciones de la Gramática aparte de ser ininteligibles para estos niños, se les presenta el idioma (de las gracias más hermosas del hombre) como objeto de estudio desagradable e incluso odioso.

Teniendo en cuenta lo dicho, el autor quiere ayudar al niño presentándole unos ejercicios prácticos del idioma a la altura de su nivel intelectual, continuando por el mismo camino y sentido a medida que el niño va desarrollando su inteligencia por medio de frases, palabras, lecturas sencillas, acompañadas de representaciones gráficas que agudizan su capacidad de observación y cultivan la memoria sin apenas trabajo, no habiendo necesidad del aprendizaje de reglas memorísticas sino que por medio de la conversación o la lectura colocan cada palabra en el lugar conveniente de forma correcta y bella.

En las páginas de este libro en vez de temas de estudio confusos y áridos se enseñan frases y ejercicios para hablar correctamente, pero como una diversión, un juego, enseñando desde el principio al niño al leerlos a pensar por sí mismo.

La importancia de este método acreditado en otros idiomas se verá inmediatamente con su 1.ª edición de este año de 1969 en Salamanca.

Nuestro autor Sr. Méndez García descendiendo a la forma de pensar y psicología del niño piensa, y con razón, que de esta forma los niños tendrán recuerdo alegre y agradable para toda su vida de los primeros años de sus estudios escolares, al paso que les brinda un útil, ameno y práctico sistema de enseñanza de un idioma.

—oOo—

La Academia de la Lengua Vasca en su campaña de alfabetización en euskera de los niños vascófonos en edad escolar confió al Doctor don Angel Irigaray, ilustre médico navarro y colaborador de «Diario de aNvarra», la versión al euskera de este magnífico y práctico método pedagógico de idio-



mas, y lo ha realizado a la perfección llevando el peso de la obra y redacción con la cooperación de su hijo, el Doctor José Angel Irigaray, y señores Berrondo y Garmendia.

Queremos aclarar que el seudónimo en el campo de las letras vascas del Dr. Irigaray es el de A. Apat Echebarne y así figura en dicho método euskericado.

En esta traducción al vascuence se ha intentado por primera vez la aproximación dialectal vasca o unificación literaria que actualmente la Academia de la Lengua Vasca recomienda con gran interés y lógica.

Tiene como base, en este intento de unificación del euskera, naturalmente, la forma central, la guipuzcoana, pero la forma que utilizaban los autores guipuzcoanos antiguos, como Aguirre de Astearsu, Gregorio Arrue y el Padre Mendiburu (de Oyarzun, uno de los predicadores en vascuence más conocido en toda la Navarra euskalduna del siglo XVIII) que tendieron a la unificación literaria mucho más que algunos escritores modernos. Contiene el método aportación de las formas navarro-labortanas sobre todo en formas verbales y léxico a imitación de los autores guipuzcoanos más modernos como Bedoña, Jaca, Cortajarena, Lizardi y «Orixe» que ya marcaron esa tendencia. Por todo esto es muy utilizable en las clases de las distintas partes de la Navarra vasco-parlante, y en las escuelas bilingües de las distintas partes de Navarra.

Una aclaración importante hay

que hacer constar, y es que no se trata de una traducción literal del Método de Méndez García, sino de una versión libre de las ideas y lecciones del autor original citado, adornadas con ejemplos del vascuence popular, leyendas, juegos, canciones, etc.

Esta utilización escrita no será obstáculo al habla peculiar de cada niño que seguirá utilizándolo de igual forma que el niño sevillano sigue con los modismos andaluces que no los lee en los libros de texto.


Vemos que para su mayor difusión se ha tenido en cuenta y cuidado de eliminar los fonetismos, es decir, las contracciones de las palabras y deformaciones del vascofón, escribiéndose los vocablos enteramente. (Ejemplo: Etxea por Etxia, Egin ditut por in tut, Aditu por aitu, etc.).

Para terminar: los profesores saben muy bien que los niños más actúan, mucho más, por lo que ven que por lo que se les dice. Bien lo dice el refrán vasco: AU-RRAK IKUSI, HURA IKASI (lo que el niño ve aquello lo aprende).

Recomendamos con interés a los Directores de las Escuelas bilingües de Navarra, y a las profesoras (andereños) de nuestras ikastolas la utilización de este gran método moderno de enseñanza práctica y correcta del idioma vasco...

Al traductor y redactor, doctor don Angel Irigaray, nuestra enhorabuena por su magnífico trabajo, extensivo a sus colaboradores.

Pedro Díez de Ulzurrun



·ELIZAREN
ITZA·

BATIKANOKO II BATZAR NAGUSIA

Eliza gaurko munduan

Maitasuna ezkongaien eta ezkonduen artean, garbi ta txukun garaitu bear dela dio Jainkoak; gaurko gizon askok ere, senar —emazten egizko maitasuna errieten ta denboren oitura onetan azaldua, gauz egoki ta ontzat artzen dute. Maitasun onek beste persona osoaren ona billatzen du, korputz eta espirituarena, ta begirune ta jatortasun aundiakin agertzen da, Jaunak berak, grazi berexi batekin zuzendu, osotu ta jasotzen du maitasun au. Batek besteari dena ematen dio, bai-ta artu ere, ta artu-eman bigun ta goxo onek bizi guzia betetzen du ta ugaritzen dijoa. Ortan nabari, aragi irrikazio utsa, ots, bere atsegiña soillik billatzen duna, agudo aspertuko dala eta ez du maitasun izenik merezi.

Egizko maitasun au azaldu ta zindotzen da, ezkontza bear bezela usatzerekin. Orta aurrak izateko eran, elkarrekin txukun egiten diranak, onak dira, ta elkarrri emandako eskubideak sendotu ta osotu egiten dira. Maitasun onek, elkarren zintzotasunarekin aienatuta, Xristoren sakramentuakin zindoturik, aldi on ta txarretan tinko irauten du, ezkontz nasketarik ez du ezagutzen, ez ta urratzerik ere. Gizona aiña da emakumea Jaunaren aurrean, biak bat egiten dute maitasun berean, ta maitasun orri eusteko Jaunaren laguntza eskatu bear dute oititzean, elkarrri amore emanez ta ba-koitzen akatxak aldi-oro patxaran eramanez.

Ezkontza ta ezkonduen maitasuna, berenez, aurrak izateko ta ezitzeko-jarriak dira. Aurrak ezkontzaren lore ta fruturik bikañenak dira ta gurasoen poza, deusek baño geiago, ernarazten dute. Jainkoak esan zuen «ez da egoki bakarrik egotea gizona» (Gen. 2, 18) eta: «asieratik egin zituen ar ta eme» (Mt. 19, 14) eta bere Egilleren eginkizunean parte emateko gizon eta emakumea onetsi zituen esanaz «azi ta ugaritu zaitezte» (Gn. 1, 28) orrengatik ezkontzaren eginkizunik nagusiena, Egille eta Salbatzallarekin, amorioz, lankide izatea da, egunetik egunera aberasten bere familia, aur berriekin kristau berriak Jainkoaren Elizari emanaz.

Egin-bear aundi au, zentzuz, elkar ongi adituz, Jainkoaren bidearen itzalarekin, bete ta uzendu bear dute beren ona ta semeen ona, jaiio ta jaiio ditezkenena begiratzuz, garai bizimodu bakoitzeko etorkizuna aztu gabe.

ESKVALERRIKO LEIOA

EUSKAL ERRIKO TXISTULARIEN BILLERA IRUÑAN

Euskal Erriko Txistularien Elkartearen urteko Billera yoan berri den Otsaillaren azken igandean Naparroko Uriburuan izan zan.

Golzeko amaiketan Iruñeko «Monja Txurien elizatzooan» gure txistulariek Meza izan zuten. Ondorean Musica-Eskolategiko (Konserbatorio) sala aundian Urteroko Biltzarra ospatu zan. Saloia jendez beteaz zagon Naparroko Diputazioaren Diputado eta horaingo Euskal Erriko Txistularien Elkargoko Lehendakari den Migel Xabier Urmeneta jauna Maiburu nagusi zararik. Billera hontan Donostiko Txistulari zaharra dan Isidro Ansorena Jaunari homenaldi berezia egin zioten. Bukatzeko anai arteko bazkaria, birtartean Iruñeko «Itxaso» izeneko kantari taldea, Elizalde anaiak eta Garay txistulari ospetsua ari izan ziralarik. Giro atsegingarri egin zuen igande hartan Iruñan, eguraldi ona, gure txistulari maiteek merezi zutenekoa.

BIZKAIKO «EUSKERAZALEAK»
ELKARTEAREN URTEKO BATZAR NAGUSIA

Bizkaian ongi ta aunitz euskararen aldeko lan ederrak egiten dituen «EUSKERAZALEAK» izeneko Elkarreak Bilboko «Santiago Apostol» Euskolategiaren Teatro artean bere urteroko Batzar Nagusia ospatu zuen pasatu berri den Otsaillan. Saloia Elkarte honen lagunez bete izan zan. Itzaldiak, elkarriketak, eta erabakiak geientsuenetan euskeraz egin ziran. Honelako moduan Zuzendaritza gertatu zan: Lehendakaria: Jesus de Oleaga. Bigarren Lehendakaria: Jose Antonio Montiano. Idalaria (sekretarioa): Iñaki Egurrola. Diruzaina: Jose Maria Macua, eta gero bokaleak amazapi izendatu ziran. Gure agurrik anaikorenak bizkaiko euskaltzale guzieri, bereziki Elkargo hontan sartuak diran guzieri.

«TXALO JO JAUNARI»
ELIZARAKO EUSKAL KANTUEN LIBURU BERRIA

Arantzazuko Praileek «TXALO JO JAUNARI» izeneko Elizan kantatzeko euskerazko kantu-liburu berri bat argitaratu berri dute. Amasei euskal kantu dauzkan liburu honek berrogei pezetako saltzeko nehurria du. Euskalerriko elizetan kantatzen diren kantu geienak gaur egunekotasunik ez dute, eta behar ditugu gure elizetan gaurkotatuz jantzitako euskal kantuak sartu, munduko era berriari jarraitzen nahai baldin badiogu, zeren gure aintzineko elizako euskal kantuak zahartu egin zaizkigulakoz. Egokia benetan Arantzazuko Praileek atera dutena.

Apezak, euskal kristauak, eska zazute liburu hau zuzenbide hauetara: LITURGI-TALDEA. Arantzazuko Prailetgia-OÑATE.

IKUSLE

ARALAR'KO AIZEAK

Aralar'ko Aingeruaren irudi beneragarria bizpauru aldiz ostua (ebatsia) izandu zala ezta kienik, ba ote da inor Euskalerrian? Gure "PRINCIPE DE VIANA" maite-maiteak ere kondatu zigun beñola, zeatz eta meatz, nola izandu zan olako lapurreta bat XVII'garren mendean.

Gertakizun auek erroz eta mamiz egiak direla, ezin uka, orduko paperetan idatzirik baidaude xeetasun guziak. Baiño batzuek eta besteak gertatutakoa beren aburura jantzi zuten, eta urteak joan urteak etorri, ixtorio, mixterio edo leyenda batzuek sortu ziran lapurreta auen inguru.

Batzuek esan zuten, lapurrak Aingerua ostu zutelarik, elizan bertan gelditu zirela, beatz bat ere mugitu eziñik, arri biurtu balira bezela.

Beste batzuek asmatu zuten, lapurrak (ohoinak) irudia mendian izkutatu zutela, orbel pilla batean estalirik; baiño billa zebillen jendea ondoratu zanean, orbel mugitzen asi omen zan eta orrela arkitu eta atzeman zuten irudia.

Badira ere esan zutenak, ohoinak Aingeruarekin Frantzi'ko mugaraino eldu izan zirela; baiño mugatik arat ezin pasatu izan omen ziren. Eta an arrapatu omen zituzten

Irugarren kondaera oni buruz, bertso batzuek ibilli izan dira aoz ao aspalditik, Arakil, Sakana ta Burunda'ko jendetartean batez ere.

Ona emen, itzez itz, Joxe Manuel Auzmendi Bakaiku' ar jatorrari oraintsu artutako bertsoak.

Samigel'en bertsoak
Nua kantatzera;
Aditu nai eztenik
Iñun ba ote da?

Maiatzeko ilaren
Amaikagarrenak
Lapurak Samigel'en
Sartu ziran denak.

Samigel'en sartuta
Lapurren arraza
Ataiek idegitzeko
Etzaudek (oso) errazak.

Baita lapurtu ere
Erak nai dubena
Beste asko gauzarekin
Aingeruarena.

Zazpi alditan ogei gizon
Gañekuak gañetik
Bila atera dira
"Larragun" balletik.

Iruña'ko Korteko
Alkate Rodrigez
Frantziaren jua da
Samigel'en galdez



Frantziara juan da
Samigel bilatu!
Belauneko jarri eta
Bertan adoratu-

Iruñen sartu eta
Diyote igorri
Kurutzia zeukala
Pixka bat biyorri.

Iruñen sartu eta
Uarte'ko billan
Ango jende tristia
Neketan zabil billan.

San Migel'go ezkillak
Asi ziran errepiakaten,
Baita Uarte'kuak ere
Airi kontestatzen.

Aitortu zidan Joxe Manuel'ek etzauzkela naski bertso guziak buruan orduantxe, eta balitekela geiago ere izatea gai oni buruz. Balekizki norbaitek olako bertsoak, edo olatsukoak, igor bitza, arren "PRINCIPE DE VIANA"ra; edo San Migel'go apezari. Eskerrak aurretik!

ARTXUETA'ko UNAYA

On Franzisko apaiz ospetsuari bere erritar dan Arozamena'tar Mikelek biotz-biotzez (25-1-1970)

(Boza: Lagundurikan denoi...)
Mikel Arozamenak jarriak

Bertso batzuk jartzeko
asmua artu det nik,
baña eziñ alaitu
iñola barrenik;
On Franzisku il zaigula
ni nago jakifiñik,
sekula ez tet artu
oinbesteko miñik,
oraindik ere nago
sinistu eziñik

Lesaka'n jaiua zan
juan dan gizaldiyan,
ta ezagutzen genduna
Naparru guziyan;
biotz zabalekua
aingerun neurriyan,
alako irripar bat
beti arpegian...
Zenbat maitatzen gendun
jaio zan erriyan!

Orain larogei ta amar
urte zu mundura,
zenbat aldiz etorri
zait neri burura!
Kapellau sartu ziñan
mojan konbentura;
bizirik artua zun
santuan itxura,
argatik eraman du
Jainkuak zerura.

Denborak baño leno
bukatu karrera,
jakinduriz bazendun
gaztetan aukera;
gero urte beteko
Erroma aldera,
andik ununza berriz
meza ematera...
Arnasa degun arte
oroituko gera

Lenengo destinua
Lesaka politan.
besteren onagatik
beti izerditan;
ibilli-aldi pranko
gure basarritan,
ondo ezagutua
emengo menditan,
amaika meza emana
San Anton'go ermitan.

San Anton igandetan
zu meza emanez,
urruti dago eta
juaten ezta errez;
penitentziya egiañaz
mendiz-mendi oñez,
igandeik utsein gabe
jakindu dedanez...
Pentsatuta bat lertu
liteke negarrez!

Gero Lesaka'tikan
Zugarramurdi'ra,
andik ezta asko palta
Prantzi'ko alderdira;
gero andikan Eliz
ondo'ko errira,
baña biotz zaukan
Lesaka begira,
denboraz etorri zan
jaio zan tokira.

Lesaka'ko komentu
polit ta ixilla,
kapellau bat nai zuten
ona ta umilla;
Superiora juan zan
Obispuan billa:
On Franziskori eman
komentuko silla,
iñundikan al bada
etorri dedilla.

Ordun etorri eta
oinbeste urtian
zer pozik egon geran
Lesaka maitian!
Ura nolakua zan
kontura gaitian:
liburua eskuan
komentuko atian,
erriari lagunduz
il dan bitartian

Begira, On Franzisko,
erritar batek gaur
biotz zuregana
dakarki txit samur.
Zertako asarreak,
errita ta mutur?
Guk ere eriotzari
badiogu bildur,
erri guzik negarrez
egin dizu agur.

Lau apaizen eraman
zuten bizkarrian,
jendea atzetikan
erdi negarrian,
arentzat naitasuna
zegon indarrian,
gero meza ematen
zazpi, aldarrian,
ondoren sartu zuten
Jaunaren lurrian.

On Franzisko, zu beti
ona ta leiala,
zar eta gaztiantzat
beti zan apala;
ill eta utzi digu
betiko itzala,
Jaungoikuak bazakin
ori ona zala,
eta bere gloriyan
eduki dezala.

Zu bezela gu ere
Lesakarrak gera,
gaztetan etorriyak
Gipuzku aldera,
baña zuk bezelaxe
maite det euskera;
Jaunak laguntzen badit
piska bat zartzera,
zure ondora juan nai det
ezurzak uztera.

Noizpait e biar zun da
oraintxe azkena,
erritik juan zaigu
gizonik onena,
Jaunak eman zaiola
betiko atsedena;
ta azkenikan auxen da
eskatzen detena:
**kale bateri eman
beraren izena.**

Lau Probintzietako bertsolariak Leizan apirilaren 12'an

Leitza eta Leiza inguruko erriak, Santesteban, Lecunberri eta Tolosa bitartekuek, ara nola Goizueta, Hernani, Berastegui, Ezkurra eta abar, aukerako okasioa izango dute eldu den Apirilaren 12'an, bertsolari saioketa eder bat entzuteko.

Saioketa ortara etorriko dira, bereziki, Naparruako txapeldun dan Arozamena, eta orain berriki Arrasateko saioketan lenengo eta bigarren saria irabazi duten Aspillaga eta Gorrotxategui bertsolari-aitatuak.

—oOo—

Ona lau probintzietatik = Laburdi, Naparra, Gipuzkoa eta Bizkaia'tik = etorriko diran bertsolariak:

Laburdi: Mattin eta Xanpun.
Naparra: Arozamena eta Madarlagua.
Gipuzkoa: Gorrotxategi eta Lazkano.
Bizkaia: Aspillaga eta Abel Enbeita.

—oOo—

Bertsolari oiek, euren arteko Txapelketa txiki bat jokatu dute IRU EKINALDIETARA.

Iru ekinaldi oietan punturik geiena ateratzen duan bertsolaria izango da txapeldun, eta ONTZAKO URRE eder bat jasoko du sarizat.

Epailariak, iru saioketan berak izango dira: probintzi bakoitzetik bana.

—oOo—

NAPARRUAK izango du saioketa asteko ohorea, len erran bezala, **LEIZAN, Apirilaren 12'an, GOIZEKO AMABIETAN.** Bigarren ekinaldia **BERGARAN** izango da Apirilaren 19'an, igandearekin, eta azkena **GERNIKAN, Apirilaren 26'an.**

—oOo—

Txapelketa txiki onek, arrotu eta piztuko du, gure ustez, laixter egingo dan TXAPELKETA NAGUSIRAKO giroa.

H.



NAPARROKO IZEN ZAHARRAK

Naparroak aberastasun handia du paper zaharretan. Batzuk bilduak dira eta beste asko herritako kutxa pipi-janetan sartuak. Ezagutzen ditugunen artean Leyre-koak ez dira makalak.

Nola deitzen ziren gure aurrekoak? Oraiko Joxe Mari eta Pablito bezela? Ez; asko aldatu dira gauzak. Gure erregeak, esate baterako **Eneko, Garcia, Sancho, Jimeno** ta **Fortunio**, izaten ziren. Gure emakume izenak: **Aiora, Auria, Sancha, Jimena, Leonor, Lopa, Oneca, Oria, Toda** ta **Urraka**.

Hona hemen zombait izen. Leyre-ko liburu zaharretatik hartuak dira. **Goñi Gaztambide jakintsuak argitaratu ditu eta urteak ere berak ematen dizkienak dira.**

EMAKUME IZENAK

Aiora (1068)
Amuna (1097). Amunia (1077)
Andregoto (1145)
Apala (1066)
Arrasabia (1096). Errasabia (1102)
Auria (1092)
Auriola (1111)
Erisenda (1099)
Ermisenda (1110)
Exemena (1110). Eximina (1060)
Goto (1110)
Jimena (987)
Leioar (1086)
Leonor (1466)
Lopa (1123)
Mancia (1137)
Menosa (1058). Menoza (1076)
Monoza (1104)
Oneca (1076)
Oria (1108)
Placencia (1072)
Sancha (1090). Sansa (1121)
Toda (1062)
Urraca (1056)


GIZAKIENAK

Aita Eneco (1057)
Auriol (1076)
Aznar (1057)
Azubeli (1046)
Dodon (1128)
Eneco (1046)
Enecón (1188)
Eriz (1046)
Exemen (1108). Exemeno (1109)
Eximino (1067)

Fortún (1099)
Fortunio (1129)
Froila (1024)
Galindo (944). Galindón (1116)
García (987)
Geraldo (1192)
Gomesano (1076)
Gómiz (1080)
Gilesindo (842)
Guillem (1359)
Hanni (1103)
Hugo (1070)
Iben (1124)
Isinario (1046 ?)
Jimeno (1095)
Lain (1095)
Legundia (1086)
Lop. (1121)
Lope (1192)
Luar (1107). Luiar (1107)
Lupo (1099)
Mancio (1024)
Munio (1072)
Ochoa (1178)
Ojer (1110)
Orti (1099)
Otón (1136)
Sancho (1107)
Sanz (1082)
Velasco (1239)
Veremundo
Virila (1068)
Xemeno (1076)

Gehiena agertzen diren izenak hauek dira: **Sancha, Toda** eta **Auria**, emakumetan.

Blasco, Eneco, Garcia, Lope, Sancho ta Fortunio gizakitan.



IKASI, MIKASI...

Bizardunak eta «Minifaldak»...

—Jainkoak diola eun on, jaune.
—Ola, Juan Migel, zzer diozu?
—Beorrei zerbait esan nai nioke

—Esan, bada, nai duzuna.

—Illebetero leitzen dugu beorrek «IKASI-MIKASI»n jartzen duna. Kontu kontari bezala, ejemploakin eta, gue eginbearrak gogorazten dizkiu. Juan den illebeteko artikulua: «ILLERAZI BAÑO GAIZTOA-GOA», eskandaloa kontra, ongi zeon, baño fuertexeo egin bear zun oaingo modaen kontra...

—Moda, berez, ez da txarra; MODU bat besterik ez da. ¿Non dituzu zuk zure aithonen zatak eta bartanak, buruse ta gerrikoa...?

—Oaiñ ez dee eamaten.

—Orduan, zu ere jazten zera

MODAN...

—Esan nai nion, moda zakarraen kontra jotzeko.

—Esan bearko didazu zein diren moda oiek.

—Ejenploateko, mutil kalpardun eta bizardun oitaz, zzer dio?

—Bestien desberdin ibilli naia, kasketaldi, nai baduzu, baño, berez, ez det uste pekatu denik. Iriki zazu edozein Enziklopedia, ta ikusiko duzu gizon serioak ere eramaten zutela orain oi den baño kalpar luzeago, baña «peluka» ere... Berdin gertatu da bizarrarekin: batzutan luzea, bestietan erdi motza, matal erdirañoak, okotz puntakoa edo sudur azpikokoa bakarrik. Emakumien kalparretaz, ez dago ez esaterik: egunetik egunera, ateratzen da kalparra eramateko edo orrazteko moda.

—Orduan, beorrek zez du zakarkeririk ikusten kalpardun eta bizardun oitan?

—Berez, kalparra ta bizarra, motz edo luze eramatera, moda —MODU— bat izango da, kapritxo bat, nai baduzu, baño pekatu, zergatik? Bakar bakarrik, nik, kalpardun eta bizardunai, esango niotekes — «non bizi zeraten lekuan, eraman dezazute kalparra eta bizarra zuen adifneko formalen erara, parragarrikeriak alde batera utzita. ¡Etzala iñork esan, ezin dela nabari zein dan gizon eta zein dan emakume, ori lotsagarria da eta...»

—Emakumeak prakakin ibiltzea re, zez da pekatu?

—Bear den modun —jez meiegik, ez estuegik!—, ez da pekatu. Geiago esango nuke: kaso askotan, mendira doazenian eta, obekigo daude prakakin gonakin baño. Oyei, ere, mutillei bezala, esango nioteke: — «Eli-zerakoan eta maizekin, obe da emakumeak, emakumeak bezala ibiltzea. ¡Etzala iñok esan "Mari-mutil" zeratela...!»

—Beste galdeat eingo nioke, baño...

—¡Galde, gizona; galde lasai!

—Oaiñ neskatz guzik asi zaizkiu betazalak urdintzen... ¿Ze dio oitaz?

—Oitaz, gizon formal guztiak par egiten dute. ¡Ontzak dirudite eta...!

—Ta, gona motzataz, zzer dio? ¡Geo ta motzao, ta motzao! ¿Noaño moztu bear thute? ¡Ta, mauke'bai, ta zelako ezkotik...!

—Juan Migel, ori gauze seriogoa da. Geyegikoa denian, ez da bakarrik moda edo MODUA; eskandalo aundia ta gizon askorentzat gaizta-bidea izan ditek.

—Beak esate'ute, pozik luzetuko lituzketela. Ez deamazkitela intenzio txarrakin. Nai ez dunak pekatu ez egin, etzala beithu...!

—Aitzaki oietan nabari da, «moxorroa» badutela barnen. Gañera, batzuek beñepin, moda baño motzago deamazkite. ¡«Minifalda» rekin, gizonaen aurrian ibilli eta eseritzeko lotsaik ez dutenai, LOTSAGABEA esatea ez da asko!

Oitaz esaten zuen Jesukristok:

«¡Zorigaitz munduari eskandaloangatik! Eskandaloak etorriko dira, noski, baño, ¡doakabea eskandaloa dakarren ua!» (Mat. 8, 6).

—Nik, beorren lekun, datorren illebeteko «IKASI-MIKASI»n, orrazi estuu paastuko nioteke. Beñepin, fede ta lotsa dutenak, ibilli daitezela bear dan modun...

—Nai duzun eskero, jarriko det «IKASI-MIKASI»n, zuri esan dizutena. Zu sartu zeran eskerotik, martxan nauken manetofonoa. Itzez-itz, gure elkar-izketa guztia jarriko det, baño...

—¿Beorrek uste du, euskaldun neskatzek, «PRINCIPE DE VIANA» leitzen dutenak, ez dutela kasorik eñen?

—Euskaldun neskatzek, munduko emakume guztiak bezala, MODA erditik dagoanian, sorrak eta itsuak dire. ¿Ez duzu ikusten, nola ardi bat alorrean sartzen danian, denak doazela atzetik, burua makurtuta, artzaiairi kasorik egin gabe? Modako zilllegitasunetaz, ez diote iñori kasorik egiten. ¡Begiak eta belarriak itxi, ta berea egin...! Jarriko det, bada, zuk nai duzuna, baño gertatuko da bein ollotegi baten gertatu zena.

—¿Ze gertatu zen, jakin baditeke?

—Ollotegi baten zegon ollanda mordoxka bat, ollasko batekin. Ataka zuloatik sartu omen zen zakurkume bat, gaztea bezala, jostatu nai. Ollanda guztiak, bildurtuta, baztarrera joanda, ollaskoak, lepoa arrotuta, arpegi eman omen zion, uxatu nai. Zarkurkumeak, saltoka ta ozkaka, kendu zion ollaskoari isats eder guztia, bi lume luzienak bakarrik utzita, eta alde egin zuen. Ollaskoak uste zuen beran bildurrez aldendu zela zakurre, ta ordu erdi batez egondu zen kukurrukuk. Ollandak, egun pare batez, par egiten zuten ollasko motzaren itxura ikusiaz. Baño, bestelakoan, sendoa ta bizkorra zelako aien jauntxoak, atera zituzten batzuek beste isatseko luma guztiak, bi luzienak bakarrik utzita. ¡Ezutuen ajolarik itsusia erakustera, MODAN egon eskero...!

—¡Alajañe, au da munduu...! ¡Biñepin, ai zatela!

—Adituko dute, bada, «IKASI-MIKASI» leitzen dutenak.

A. ASTIZ ARREGI



DONEZTEBEKO FESTA

«Otsaila bizilli baxalla» dio erran zaharrak eta bai arrazoñarekin. Ilabete honek urtero egiten du bere txarkeria eta aurten ere ilabetearen lehenean euria bortiziki eginik, Doneztebeko festa ondatu zuen. Halare Bertizarana ta Malda-Errekako iri nagusian yende aunitz bildu zen eta naiz ta eurie atertu gabe ari zuen, iragarritako festa ospatu zuten.

Goizean iruñar txistulari Elizalde anaiak soñu a aiak goaz, Doneztebeko karriketetan barna ibili ziren. Gero eskuarazko Meza bertsolariekin, Uztapide La:arte ta Mattin bereharian kantatu zutelarik. Gero txistulari talde eder bat eta bi akordioniste aurrean zauketela, Iturengo «Zanpantzar» deitutako gare-yoleak Doneztebeko karriketetan ibili ziren beren pulumpa aundiakin bazter guziak iñarrosten zutela. Eguerdi aldean «Bar-Zana» pilota plazan aizkora apostua.

Alde batetik Latasa ta Mindegia, eta Arria-Berekoetxarekin bertzetik, bikote bañotxak ogeina kanaerdiko onbor ebaki beharrak zituztela. Lehenik lau aizkolariak onbor bana moztu zuten, lauak batean asita zeñek lasterrago ebaki. Bazen sari bat lenbiziko onbor hori lasterrera moztu zuentzat eta Latasa izan zen irabaztale kana-erdikoa 1,27 minutuz erdibiturik. Bigarren Mindegia, irugarren Arria eta Laugarren Berekoetxea. Banakako lanak egin zituztenean Txandakako lanari lotu ziren.

Asi aurretik trabesak Latasa ta Mindegiaren alde zauden «eun berrogeiri» uyu egiten zutela. Lanean asi orduko Latasak eta Mindegiak aintzinaldia hartu zuten eta gisa hortan eta beti aintzinean lan guzia akitu arte. Bikote irabaztaleak 20 kanaerdiko egurrak 33 minutu ta 34 segundotan moztu zituzten eta Arria ta Berekoetxak lan bera 35,9 tan.

Lauetan hoberena Latasa. Honek denak arritu ditu, sasoirik onenean zen bezalaxe agertu zitzaigun sunbildarra Donezteben.

Gero arrijasotzaleak ere ziren. Lehenik Usategieta eun kiloko arri zilindroarekin, bi minutuz 25 goratu zuela. Gero Agerrek lau kan toneko 125 kilokoak bi minutuz 14 aldiz bizkarreraño. Azkenik Uztapide, La:sarte ta Mattin ari bearrak ziren baiñan euri erauntsiek ondatu zuen besta eta bertsolariek etzuten kantatzeko lana izan. Bazkalondoa bai, orduan izan omen ziren naiko bertso eta ostatuan bildu zirenak ederki gozatu omen zuten.

Arratsaldeko pilota partidak eta eurie ari zuelakotz, Donezteben egin bearrean Oronozko Maristen frontoian yokatu ziren. Lenbiziko partidari Lajos bakarrik, Ber meoko Txo eta Berasaluzen kontra. Bajosek partida airez aire irabazi zuen 18-7. Bigarren partida atakatuago izandu zen. Retegi bakarrik, Otxoa ta Alegriaren kontra eta Retegi txapeldunak galdu 18-16. Partida gustagarria. Partida ondoren Doneztebeko alkate yaunak bere erriaren izenean eta omenaldia bezala, Retegi Txapeldunari edergailutzat eman zizkion, «Kopa» eder bat, ohorez Txapela eta bai paxa gorria ere. Arratsaldeko zortzietan boseoa egin bearra zuten Donezteben eta bertze bersolarien artean Urtain ta Karrasko burrokari famatuak ere ari beharrak ziren. Egun guzian bezala euria atertu gabe ari zuen eta boseoko yosteta hori ondatu zitzaikun. Aimbortze yende bildu zen Urtain ikusteko naikeriarekin baiñan etzen posible izan, euriek ondatu zuen besta. Urtain arratsaldeko bortzetan Bayonan aritu zen eta oraingoan ere bere ogeitaseigarren kontrarica anka-z-gora bota du, arrigarria da gure boseolari euskaldunaren ukaldiak nolako indarra duen, ukitu orduko denak aidian botatzen baititu. Orai Europako txapeldunarekin ari bearra da eta ain segur orai arte egin duen borrokaldirik aundiena izanen da. José Manueli suerte on bat desiratzen diogu.

ANZANARRI



ARRIJASOTZALEAK

Euskalerririk beti izan du gizon indartsuen fama. Lenagoko gizonak bizkorak balin baziran oraiokoa ere ez dire gutiago. Aizkolari, arrijasotzale, pilotari ta boseolari onak baditugu orai eta lenagoko denboretan ere izan ditugu, hor ageri baita euskaldun yendearen bizkortasuna.

Otsaillaren 22'an Azpeiti'ko plazan arrijasotzale apostua yokatu zuten Mundu bat yende bildu omen zen. Azpeiti'n, zezen-plaza leporaño bete zelarik.

Arrijasotzaleen izenak eta beren eginkizuna hemen:

José Manuel Agirre «Endañeta» Iziar'koa, 1,78 m eta 100 kilo pisu.

Jose Ramon Aretxabaleta «Aretxa» Deusto'koa 1,80 m ta 104 kilo.

«Endañeta» gipuzkoarra 200 kiloko lau kantoneko arri luzearekin aritu zen eta «Aretxa» 181 kilokoarekin, hau ere klase bereko arria. Arrijasotzaleak bakarka aritu ziren eta 21 minutuz bizkarreraño zeñek gehiago goititu. 21 minuto hoiek iru zatitan berezi zituzten, aitaldi bakotxa zazpi minuturekin. Lendabiziko ekiñaldian «Aretxak» zazpi minutuz 181 kilokoak SEI aldiz goratu zuten.

«Endañetak» lenbizikoan zazpi minutuz 200 kiloko BEDERATZI aldiz bizkarreraño.

Bigarren «Aretxak» SEI aldiz. (lenbizikoan bezala).

Bigarren «Endañetak» ZAZPI aldiz.

Irugarren aitaldian «Aretxak» LAU jasoaldi.

Irugarrenean «Endañetak» SEI aldiz 200 kiloko «arri koxkorra» bizkarreraño.

«Endañeta» irabaztale 200 kiloko arria 22 aldiz jaso zuela.

«Aretxa» galtzaleak 181 kilokoak 16 aldiz jaso zituen.

«Endañetak» denak arritu ditu, lenagoko marka guziak autxi ta porrokatu dituela, eta erraten dutenez pixka bat gehiago bortxatu balute 27 jasoaldi ere eginen zituela.

Apostu ederra izan omen zen eta yendea kontent omen zagon.

M. I.

1970
«TXOMIN
AGIRRE»
eta
«XENPE-
LAR»
Sariak

Euskaltzaindiak 1970 urteko «TXOMIN AGIRRE» izeneko euskeraz idazitako Nobela Saria eta «XENPELAR» delako euskal Bertso-Paperak saria antolatu ditu. Lehenengo aipatu dudana Saria, denok dakigunez, nobelarik onenarentzat da. Bigarrenez jarri dudana bertso-paperrik jatorrenarentzat izanen da.

Beste Sari berezi bat euskal aditzari dagokiona eta aunitz dirua eskeintzen duena HEGOSA Elkargoak antolatu du. Aditza, erderaz verbo da, Errebista honen beste toki batean Sari aundi honen berri eta xehetasunak argitaratu ditugu.



ERRIZ - ERRI



SALDIAS

URTE-ZAR ETA URTE-BERRI

Noiz-baitere, erri batean, Urte-berri egunean, erriko apez jaun batek esaera au: «San Silbestre galtzar-zar, yoan da Urte zaarra».

Urte-zaar eta Urte-berriari begiraturaz Sunbilgo umeak, etxez-etez ibilliaz, «Urtatsak-Urtasketan», nakola abesten omen dute: «Urte berri-berri - zer ekarri berri - uraren gana - etxekandria ona - nagusia ohea - ur ta ararats», «Urte zar - nik atorra zar - maukarik ez - nik

axolik ez». Gure erriko umeak ez dute olakorik egiten. Baño Urte-berri egunean, emengo andre bateri entzun nion, bere amatxiari adittutako esaera au: «Gaba egunduz - ari dun gure azkena - urbilduz». Barren-barrereño sartu zitzaidalako, emen jarri dut.

INAUTE

Urtero bezala, aurten ere, gure erriko mutillak egin dituzte beren pestak. Ilbeltzaren 11'garrenean asi zituzten eta 15'garrenean bukatu. Otordua eta dantza izan zituzten beuen eginkizun nagusienak. Beste jostaketarik etzuten antolatu. Aurteko urtietan aizkora-apustutxo bat izatera saiatu dira. Elkarrekin ongi konpondu dirala entzun dugu. Berri onek asko poztu gaitu. Aserrekeriak

iñun ez du gauz onik. Beren onerako, urtero bezala, Meza bat atera zuten. Igandean eman giñuen, kanpora bearrak giñalako, astelenian.

ERROMARA IBIL-ALDIA

Ilbeltzaren 21'tik Otsaillaren 4'ra saldistar batzuek egin dugu ibil-aldi zoragarri bat Erromara. Egin arte, dena amets bat iduri zun. Nun-nai eta nola nai zortzi saldistar biltzen giñan. An ikusten zan Yurdaneko Franxikka (monja) bere kolore gorri fiñ-fiñekin, deus egiten etzuen bezala, beti alai ta pozik, irri goxo bat ezpañetik zeriola. Ibil-aldi ontan zenbat gozatu ote du monjatxo orrek. Franxikka ain kontent ikustean, denak poztutzen giñan. Gaiñerakoak ere ez dugu gaizki pasatu, Jaunari eskerrak. Alaitasun eta pozaren faltik ez dugu izan. Al giñun guzietan elkar ikustera saiatzun giñan eta gure kantu zaarrak abestuz bukatzen giñuen elkarrekin egotea.

MUTILLAK MENDIRA

Iñauteak egin-da bereala batzuek joan ziran beuen mendiko lanetara. Beste batzuek geroago joan dira. Oraindik joatekoak ere badira.

Joan diranak espero ditugu datorren astean, Gogojardunetara. Azkeneko egunetan bederen Pazkoz-egitera etorriko dira.

Gure agurra eta maitasuna biltzen dizuegu.

BIDE-ZABALA

Otsaillaren 8'ko egunerokoak (periódico) zion, Naparrako Aldunzak (Diputación Foral) ontzat eman duela Saldisko erriko baserrietara egiteko erabakia dagon bide-zabala edo karretera, eta kostarioa 1.270.750'50 pezeta dirala.

Bide-berri au oso ongi etorriko da denentzat. Baño batez ere baserriar eta erritarrentzat, Gaurko egunean elkartasun bide bat izango da. Denborakin konturatuko gera, bide onek egiten dizkigun mesedeak ikusita, zer ordu onean erabaki zen bide ori egitea. Neretzat, zorionetan gaude denok, iñoiz egoteko ezker.

ELURRA

Otsaillak bere ziriak sartzen ditu. Erenego arratsean soñu txarrak asi zuten. Tximista alde batetik, eta ortotsa bestetik. Bereala kazkabarra eratso zion. Kazkabarren atzetik elurra. Atzoko egun guzian, ortoska egon zen, eta geiago eta gutxiago beti elurra arritu zun.

T. OTSANDORENA

MENDI-ZAÑA

Aurrek ginenean, egunoro ikusten ginuen Errafel.

Gizon azkarra; ezur aundikoa; sekail, baña indartsu, gorputzez: bere lanari yarraikie; yendeartze onekoa ta erabakietan zuzena, bizitez.

Inguruko txoko ta erreka guzien berri zakien, bere eginbearrik aundieta, goizetik atsera bidez bide ta bidexkaz bidexka kurri ibiltzea zuelako.

Goizean goiz aterako zen etxetik, guardasola, makile ta boneta, iru lagun ezin utziok berekin zaramakile.

Maiz aski, gu eskolarakoan, ta oinkada batzuk goiti beiti beti toki berean gurutzetzen ginen Errafel-ekin, ure mendire ta gu eskolara.

Bildurrik ezginion; baña itzel aundie, bai! Aurrek maite zituen; ta zerbait itz polit errateakoa izeten zuen beti ekenzat. Aurrek ere maitesune agertzen ginion, aren ateraldiek irri goxoakin onartuz.

Inguruetako erri ta baserriek zakiena zen Errafel: ala bear ere, nai te naiez, denekin bazuen, bada, solasbide, denekin negurri berean ongi eldu zelako.

Etsaitasunaren bat sortako zitzaion noiz edo noiz bere eginbearra zuzen betetzetik, zigorra ezbaizaio makur dabilenari ain goxo;n aiz biotz oneko mendi-zañeri ere norbait zanpatzea ez atsegin. Baña, egunek gan ta egunek etorri, bakera ta adiskidetasunera etortzen zitzaizkion beren makurrengatik etsaitutako guziek. Ta, zertaz ez, beraz uste etzutenean beartako baidiren?

Zebillen bidexketan, goiz artan edo bezperan nor ibilie zen, geienean oin errestotik ezagutzen zuen.

Mendiko azienda, bere nabarmengarri guziekin, zer norena zen gogoan zaukan beti, nekazariei non zituzten yakiten edo bearrean biltzen laguntzeko.

Mendi-zaingoaz gañera, erri-zaingoa ere bere gain izaten zuen maiz aski Errafel prestuek. Ta mendiek baño lan geiago ematen zion zenbait aldiz unek. Mozkorrek ta berea etzenez yabiltzelek zekarkioten lanik zallena.



Mozkorrek: ta nolako mozkorrak! Arrallek! Etzen orduen orai bezala etxetan ardorik edaten, ez, aste-gunez zeurik: bestetan tragoxta bat ta kitto: edateko oiture-eza unek, barna aul zekarkion alkolari, ta errexago zeraman gizona eperra arrapatzera: ta, arrapatu ondoan, idukitzeak lan! Lan ortako, nor? Errafel!

Bertzena goxo zitzaizenetik ere, franko polliki izaten gintuen. Ta, noiz ez? Errafel zen bakarrik naski olakoentzat bildurgarri.

Aserreak eta zalapartak izaten zirenean, Errafel-engana laisterka, ya bere itzalakin bakea plantatzen zuen nonbait...

Bein batez etxeko leio baten ondoan bizarra kentzen ari zen, berekin alabatxo bat yostetan zaukela. Untan, leiotik ikusten ditu ejiptoar batzuk elkarrekin mokokan, ta etatik bat mendi-zañaren etxaldera abien. Alabari erraten dio: «Goaye, ta eznaizela etxean errayon atso orri». Alaba badoaye lasterka, ta eskaleraburutik: «Aitek erran du ez dela etxean». Nekaren ateraldi uni esker, atsoa asten zayo Errafeli oyuka, ta bi taldekoak elkartzen dire, mendi-zañarentzat batek baño bertzeak aundiagokoak erranez. Onik ez dakarren gaizik ez omen.

Zenbat aldiz oroitzen naizen Errafel prestuek, aren ezurrajeaz, makil sendoaz, guardasol zabal ta azkarrak, boneta aundi begien kerizuez: ta batez ere, batez ere, guretzat zituen itz xamurretz!

Zeruen bedi.

ARITZ

BASERRITARGOA

Ez gara behar bezala baserriak dadukan garrantziari ohartzen.

Oraindik ere, asko lekutan mespreziatua da, beste mail behe-ragoan balego bezala. Hor dabilta egiazko ameka arlote sasi-baserriarren antzean, jendeari far-egin arazi nahiz; baserriarren nortasun berezia nihundik ere ezautzen ez dutelarik.

Bestalde, gure ohiduraren errorik jator eta sendoena baserrian datzala, entzun ohi dugu betidanik. Egia da. Gure herriko kultura ahoz aho heldu zaigu, eta asko baserria zela kausa eta medio.

Aski dukegu, gure Nafarroan euskara nola dagoen behatzea. Baserriar den lekuetan, tinko gordetzen da; eta bi mende hauetan euskara galdurik dagoen hainbeste eskualdetan, baserriar ez. Hau ez da lege noski, bainan, besteak beste, honek ere ba du zer-ikusterik.

Parte handi batean, beraz, euskara eta jatorrizko kultura baserriari esker gorde dira. Eta baserriar ez garenendako, haien iturburu eta ohantzea hura da.

Gaur, diotenez, baserriaragoa ez bide da lehen bezala bizitzen ahal. Jalgi behar da. Artu-emanetan paratu. Premiako eta ezinbesteko atera-bideak finkatu behar ditu. Itz gutxitan: hil ala bizi.

Tenore batean, lurraren lantzeko ekonomiko-era nahikoa zen; eta garai hartako gizarteari zoakiona. Gaur berri, etsipen bidean doa. Gaurko gizarteari ezin dio ihardetsi. Bakarka, orain dagoen gisan, ezin du. Elkarturik, behar bada, tinkatua litzake haren oinarria.

Baserriari, moldatze berriak ez lekioko makur handirik sortarazi behar. Urrats sendoagoak emanen litzuke, guk eta gure ikusmoldeez egiten baldin ba dugu. Hortan nago. Kanpotikako ikusmoldeak eginen luke gaizki; ez baserriaren aintzinatzeari so, bainan bere sakelari. Eskastuko luke, murriztuko eta hilko. Gisa berean deuseuskaldunduko.

Honekin ez dut erran nahi kanpotikako gauza guztiak txar direnik. Dudik gabe ez. Behar beharrezkoak ba dira, bainan, gure izate eta nahiri oharturik.

Gure herrian, besteetan bezala, nekazalgora bizi-biderik edatuena izan da. Herria, euskal ohidurari atxikia zegoen. Industrial-aldaketa gertatuz gero, gauzak aldatzen joan ziren arras; eta herria erdalduzten asi. Bainan baserriarrek euskaldun izaten irauten zuten, eta dute.

Menturaz, baztertuak eta karrikatik urruti daudezikotz. Eta haxe da gaur egun moldatu behar dena. Ez du euskaldun izan behar, urruti eta bizimodu aintzintatu eta onik ezautu gabe degoelakotz; gaurko gizarteari doakion gisan, atera-bide bat aurkituz beizik. Gaur dituen esi eta oztupoak aztertuz; behar dituen artu-eman (industria-nakazalgora), eta soluzioak (koperatifak, elkarteak, eta abar), ikasiz; eta nik dakita er gehiago.

Benetako gure industrial gizarteak kasu eman behar lioke. Obligatua dagoela erranen nuke.

Nafarroko plan de desarrollo, delakoan, ez litzake baserriaragoa atzendu behar. Ez bailitake bestenaz, benetako Nafarroako desarrollo izanen. Eta gisa berean, gure beste eskualdeetan.

Frango lanik ba da egiteko, eta zimentarriak ez dira nola-nahi paratzen ahal. Gauzak paperean zuritzen ahal ba litez, erreza litzake soluzioa. Bainan ez da hala. Lanari errotik lotu behar da; gauzen egiteko ez da beste biderik eta.

ANKO SENDOA



AIZKOLARIAK

Martxoaren lenbiziko egunean bertze apostu bat izan dugu eta oraingo Tolosa'ko plazan. Mindegia ezkurratarra eta Ayerbe ataudarra buruz-buru zein-gehiagoka ari izanak dira aizkorian eta lasterka. Beren eginkizuna hauze zen:

Biek batean asi ta zeñek lasterra egin, lehenik zortzina onbor metroko bueltakoak ebaki eta ondotik zazpi kilometro lasterka.

Zortzi egurren lana naparrak 10 minuto ta bertz segundoz egin zuen eta gipuzkoarrak amairu minuto ta zazpi segundo behar izan zituen lan hori bera egiteko. Egurren lana bukatu ta berehala Mindegia lasterka asi zen eta Ayerbe'k aizkora lana

akitu orduko, Mindegia'k bazituen zortzi buelta emanak plazari ea 800 metro kurritu zituelarik. Hala ere «ehun ogeiri» Ayerbe'ren alde uyu egiten zuten. Ataundarra korrikalari ona da eta aunitzek uste zuten zazpi kilometroak osotu baño len arrapatuko zuela, bañan etzen hori gertatu, zortzi buelta kentzea ez baita yosteta. Mindegia'k nonbaitetik indarrak aterata zazpi kilometroak osotu zituen Ayerbe'ri ogei metroen bentaja atera ziolarik. Doi-doian ezkurratarrak irabazi.

Mindegia irabaztaleak, metroko zortzi egurrak eta zazpi kilometro 37 m. ta 37 s/tan.

Ayerbe galtzaleak, lan bera 37 m. ta 43 s/ tan.


Apostu ederra banan yende gutxi plazan.

Migel Mindegia Ezkurra'koa Apirilian 21 urte bete beharrak eta 81 kilo.

Jose Ayerbe Ataun'goa. 27 urte bete berriak eta 71 kilo.

Gure goresmen bizienak bi butilleri, eta batez ere eskurratarrari.

M. IZETA



EUSKERAREN IRAUPENA, GU BAITAN DAGO

¡Akusazio gogorrak!

"...aquí se nace vasco..., se habla vasco..., se vive vasco... y se muere vasco", idazten zuan 1843 garren urtean, Pasaian zegoalarik, Victor Hugo idazle ezagunak. (Unamuno y el vasco, Martin Ugalde liburutik).

Orduetik onera, 126 urte besterik ez, eta...! nolako aldaketa galbidean!

Zergatik galbide ori: "...euskerak gaurko zibilizaziaren erdian, ez pranzes eta ez espanyolarekin ezin burruka litekelako?, galdetzen gendun gure azkeneko artikuluan.

—oOo—

Eta gaur siniste sendo eta biotz oso batekin erantzuten degu:

EZ, eta MILLA BIDER EZ...!

Burrukaldi ortan, eta eragozpen guzien gainetik, berriz diogu, eragozpen guzien gainetik, burrukaldi ortan euskarak garaille irten du, nahi izandu duten famili euskaldunetan.

Bai Euskalerrian eta berdin Ipar eta Ego-Ameriketean, burrukaldi ortan garaille irten duten famili aunitz atera genzazke exenplu gisa.

Euren seme-alabak, gaur euskera garbi eta goxo batian mintzo diren familiak.

Eta orok erran lezatekena: Famili oiek egin dutena, ez zezateken beste euskaldun famili denak egin...?

Ez dituzte eragozpen berak izan batzuk ea bertziak...? Zergatik orduan batzuk BAI, eta bertziak... EZ?

Borondate eta euskaldun sendimenduen orde... zabalkeria eta ajolagabekeria NAGUSI izandu dutelako.

—oOo—

Batzuk erantzuten dute: "...aurrak eskolan erdaraz ikasten dute eta... erdara jartzen gara gurasoak." Erantzun uts eta zabar au, nik neronek aunitzetan entzuna det Bidasoa erreka aldeko gurasoetan.

Bainan bertze batzuk erantzuten dizute, gutienak zoritxarrez: "...eskolan erdaraz eginagatik... ETXIAN EUSKARAZ JARRAITZEN degu, aurreri euskararenganako maitasuna gordearazten saiatzen gara."

Eta etxe oietako aurak zintzoki eta garbiki euskara gordetzen dute.

—oOo—

¡NADIE RECHAZA A SU MADRE POR INUTIL!

Batzuk erantzuten dizute: "...euskerak ez du deusetarako serbitzen. Etxetik atera ordurako, pranzesa edo espanyola bear dituzu munduan ibiltzeko."

Egia ori: espanyola eta pranzesa bear dituzu, eta aunitzez obeago, oiekin batera anglesa eta alemana badkizkitzu munduko gora-berak jakiteko.

Baño euskara jakiteak ez dizu galerazten, gutxiagorik ere, ez dizu galerazten, bai espanyola eta bertze izkuntza denak ikastia. Geiago oraindik: euskara dakian batek, espanyola eta pranzesa bakarrik dakin batek baino OBEKIAGO IKASIKO ditu.

Ori ikusia eta probatua dago.

Ori orrela da. Bainan izango ez balitzake ere, euskara deusetarako ez duala serbitzen erraten duten gurasoeiri errepikatuko dizkiegu, bein batian Urmeneta jaunak "Prncipe de Vianan" errandako itz eder oiek:

"...NADIE RECHAZA A SU MADRE POR INUTIL...!"
AKUSAZIO GOGORRAK...!

"Prncipe de Viana'ren" irakure zeraten guraso gazte euskaldunak: Arren da arren, ez dedilla zuengatik erran, Barcelona'ko ikasle euskaldun gazte batek Satrustegui jaunari, bere gurasoengatik idazten zituan itz garratz oiek:

"para mí es una pena que hablando euskera mi familia, mis hermanos y yo lo desconozcamos casi por completo. Hasta me da vergüenza confesarlo... Ahora el tiempo perdido por nuestros padres, hemos de recuperarlo los hijos..."

Bai, aurak diran arte, seme-alabak ez dute EUSKARAREN ESKASIRIK sentitzen.

Bainan AUNDITZEN diranean, ¡zer pena eta nolako akusazio gogorrak euren gurasoentzat!

—oOo—

¡TRAICION... BARBARIE...!

Orregatik onartzen ditugu, egun batez "Prncipe de Viana" aldizkarian J. M. Satrustegui jaunak idatzitako itz oiek: "Hemos dicho en más de una ocasión que llegaría día en que los hijos —nuestros hijos—, acusen a sus padres de desidia, sino de traición."

Berdin onartzen ditugu Miguel Javier Urmenetak, "Prncipe de Viana" bertan datzitako beste itz oiek: "...Una nueva generación más culta tchará nuestra época de barbarie."

Batak eta bertziak itz gogorrak darabilkite euskaldun denen, bereziki nappar euskaldunen zabarkeria kondenatzeko: "traición... barbarie".

Bai, ez dezagun gogortasunaren beldurrik izan eskuara gorde nahi izandu ez duten euskaldunak jujatzeko; batek ere, edozein aitzakirekin, etxeko aurretan, euren seme-alabetan, euskara galtzerat utzi duten familiak jujatzeko.

EUSKALDUNAK GARA ERRUDUN...

Galtze orretan, EUSKALDUNAK BAKARRIK gara errudun. Ez dezagula, ez ezerreri eta ez inorreri aitzakirik bota: gu gara euskararenganako "traidoreak..."; gurea da, delako "época de barbarie" ori.

Eragozpen ikaragarriak dituala euskerak badakigu: batasunik-eza, jakintzarik-eza, erdarazko eskola..., radiua, telebixta... mota guzitako, batez ere deportetako egunkari eta aldizkariak...

Pranzes eta espanyol izkuntzak parrastaka sartzen dirala gure etxe-bizitzan. Baño, alaz ta guzti, Hans Mukarovusky, Viena'ko Profesoreak esan zuana, egia da: "...el futuro de la lengua vasca, está en manos de los vascos". (Unamuno y el vasco, M. Ugalde'ren liburutik).

Guk nahi badegu ESKUARA EZ DA GALDUKO.

—oOo—

ZER EGIN EZ GALTZEKO...?

Galdera oneri, iritzi bereko erantzun bakarra... zail da. Guk, IRU ITZETAN borobilduko degu gure erantzuna.

Eta M. J. URMENETA, UNAMUNO eta Mathieu, Akitzeko Apezpi-ku jaunak izango dira gure lekuko.

HERNANDORENA



Idazlari ospetsu hori erdi nafarra zen, eta naikaria, osorik. Nere liburu PROSISTAS NAVARROS (XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak) «Prncipe de Viana» El-kargoak 1958 urtean argitaratu eman zuelarik ORIXE-K esan zidan! «Zure liburu atsegiña irakurri dut, bainan zertako ez nauzu ni ere sartu, LARREKO eta MANEZAUNDI-kin batean? Izkiriatzaille bezala nafarra, eta Nafarroko euskera dut nik geien ikasi eta erabili, beste edizione batean ene artikulio edo sail batzuk ere sar ditzazun, eskatuko nizuke».—Hitz ber-berak ezpadira, esan naia hori zen.

Egia zion ORMAETXEA-k, Oreja-n sortua izanagatik, jaio eta berehala Uhizi-ra eraman baizuten eta herri hontan zen azi eta handitu. Hemengo zuen beraz bere euskera, —Liburu— poema eder ori hola asten da:


NAPARROA ZARREAN LARRAUN-
-en UITZI / BELAR GOXO TARTEAN
EPER-KABI IDURI.

Bere liburu eta izkiributan nafar kutsu garbia galtzen ez duela nabaitzeko aski da. Meza-Bezperak, Euskaldunak, irakurtzea (edo Juandone Agustiren Aitorkezunak, Tormes-eko itsu mutilla edo Mireyo delakoen itzulpenak). Maixu handi bat izan zen ORIXE euskara idaztean, bainan maixuago zen aise mintzatzean; bere euskara etorri eta iturri aberatslanetan ematen aditzera zituen; menditar artzai eta euskaldun hutsekin asko gurutzatu zela berehala sumatzen zitzaion.

Herritarren oitura zahar (Artaxuriketa, Olentzaro, Iñauteri, Pasturalak, Arri-altxatze, Aizkolariak, Bertsulariak, Balankariak, Ididemak, Es tropadak, etc). siñeskeri, pilotari, dantza, kanta eta esaera edo lelo zahar ezkuturik etzen harendako, Algortatik asi eta Mauleraiño. Euskaldunak poeman horiek denak bertsutan ematen ditu. Bainan eleketan naturalago en, eta naiz idaztean herriatik etzen guti baizik baztertzen, ederrariaz eta olerkiaren karietara zenbait hitz bitxi eskapatzen zaio, bainan mintzatzean beineraz.

Poema horrek 569 orrialde ditu, azkenetan ekartzen dituen 60 kantadoinuen solfak kondatu gabe. Bere asmenetik ateratako neurritzez gaiñera herriko diran kanta asko ekartzen du liburuak, zenbait tokitan zerbait aldatuz, egia esan. Hor agertzen dira Larraungo eta beste-tako plazagizon egiazko izandakoen izenak eta markak; hala nola, ZUBIETA-ko Pontxo danboliña, SALDIS-ko Beltra bertsularia, ZALDIBI-ko Oker-rra apostu auzilaria, EZKURREKO Makil balankaria, ERATSUN-go Koxko talogillea, BETELU-ko Tartiko pilotaria, ERRAZKIN-go Zamargina, BERUTA-ko Urtxupe aizkolaria eta besterenak.

Bere bertsu tankera agertzeko, artzainen bizitza kontatzean hau sar-



Nikolas Ormaetxea - "Orixe" - «Euskaldunak» liburua

tuko dugu: Artzaia arnaska ardi-billa mendi garaiean / noizean bein gelditzen da txintxarri-zurrean / Biotzean pilpira ta zitzu belarrian / besterik ez entzuten ingurumarian.

IMOZ-ko apezgairan lpuñatik hona bertsu bat; Senar-emaztek bi semerekin il nituen gau batean / Iñork ikusi ez nindula ta / geldi naiz erdi-pakean / Barneko oiua ezin ixilduz / nenbillen urtebetean / gauazko loa egiten nula / pekatu aren gaiñean.

Herri kantatik sorgin-bertsu hau: Emezortzi serore eta bortz emagin / buruz arindu eta sartu dire sorgin / Uxta egiten dute larunbat gauerdin / erratz kirtu gaiñean zaldiz doazanin.


Bukatzeko, bere muiñetako den lpuin ederra: Errege baten alaba bein batez eri zen, / meriku, sorgin, inortxok senda etzezak / Aren inguru zoratzuz, alperrik zebiltzen, / nexka gaixoarentzat senda-gairik etzen.

Geroago begi-illunago, ez irri sekulan / zer egin etzekitela akituaz zozan / Senda nai dunari oiua Erre-

geak ontan / pozik lezaiokela emaztetzat eman.

Liburu hori denendako arrobi bat da, guziz aberatsa kanta zaharretan.

APAT ECHEBARNE



EUSKAL ADITZA

«Herri gogoa»ren sariketa

Joan dan hilleko Euskaltzaindiaren biltzarrean esan bezala, Herri Gogoa argitaldaria euskal aditzari buruz Sariketa bat antolatzea erabaki du, eta base edo araudiak hil honen azken ostiraleko biltzarrean erabakitzeko gelditu zanez, hemen dioa beren aurrerapen bat.

—Saria aditz laguntzaileari buruz da. Auxiliar aditzeen bariante guztien artean (adibidez, gera, gara, gire) aditz-joko bateratua, garai guztietan osatzea.

—Proposatzen diren erak, rasonatuak beharko dute izan (adi bideak emanik eta itzulpenak ere) forma berririk asmatu gabe iñoiz erabili edo erabiltzen diren artean aukeratuak.

—Lan zaila ta nekea danez gero, epea lanak presentatzeko Irai-laren 15 art eizango da.

—Epai-mahaineoak Abenduaren azken bilerarako beharko litzuzke lan guziak ikusi eta erabakiak eman.

—Gerta diteke, lehen saria hoberena izatea, bainan bigarrenak edo irugarrenak zer-nahi on edukitzea, eta epai-mahaineoeri hala ba derizkie, lan hauekin osaketa bat egitea eskatzen zaie, herriak azken lan egoki bat ezagutu dezan. Hortarako behar hainbat denbora hartzen izango dute, eta lan hau ordaindua izango da.

—Saria 100.000 peztakoa izango da, era honetan zatitua: 75.000 pezta lan hoberenarentzat eta 25.000 pezta epai-mahaineoentzat: lanen osatzea egin dezaten. Osaketa lan hau egiteko hala behar balitz, geituak izango dira 25.000 pezta hauek.

—Osaketaren beharrik ez balitz, 25.000 pezta hoiek Euskaltzaindiarentzat gelditu litezke, epaileen gastuak ordaindu ta gero.

—Epai-mahaineoek erabakiko dute Saritua bat edo geiago behar duten izan, berdin jasotako lana ikusi ondoren. Saria eman gabe gelditu behar ba du.

—Saria eman gabe geldituko balitz 75.000 pezta hoiek datorren urteko sariari geituko litzaioke.

—Lanen egileek beren eskubide guziak Herri Gogoa-ri emango dizkie, honek publikatu ahal izateko. Bi urteren buruan publikatzen ez dituen lanen jabe Euskaltzaindia egingo da. Sarituak izan ez diren lanak argitaratzen ba dira, egileek liburu salneurriaren % 10 jasoko dute.

—Egileek 3 kopia bialiko dituzte, korreo zertifikatuz, zuzenbide hoetara: HERRI GOGOIA, APARTADO 747, SAN SEBASTIAN. Lanak lema batekin bialiko dira, eta beste sobre itxi batean lema eta egilearen izena.

Herri Gogoa argitaldaria aditzera eman dio Euskaltzaindiari, begi onez ikusiko lukeala epai-mahaineoak jaun hauen artetik osatzea, berak Sariketaren parte hartzen ez ba dute: P. LAFFITE, A. VILLASANTE, K. MITXELENA, M. LEKUONA, A. POLIKARPO IRAIZOZ, L. AKESOLO, A. IRIGARAY ETA F. MENDIZABAL.